

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua arrakastaz aurrera eramateko ezinbestekoa izango da gure produktuaren oinarritzakoak diren elementu nagusiak behar bezala garatzea. Elementu horietako bat pantailak dira, gure produktuaren alderdi nagusienetako bat. Hala ere, pantailak bere horretan ez dira nahikoa izango, hauek ez dute zentzurik izango atzean Inteligentzia Artifizialaren laguntza eta integrazioerik gabe. Bi elementu hauek elkar osatzen dute eta bata gabe besteak ez luke erabilgarritasunik izango. Pantailak gure produktuaren funtsezko zatia izango dira baina soilik teknologia aurreratuarekin eta IAren integrazioarekin lortuko dute beren potentzial osoa. IA-k aukera emango digu pantailak, erabiltzaileen beharretara egokitua izateko. Horrek esan nahi du erabiltzaileek esperientzia pertsonalizatua izango dutela gure produktuarekin. Pantailak dira gure produktuaren alderdi fisikoa, erabiltzaileek zuzenean erabiliko dutena. Inteligentzia Artifiziala da pantaila horiei erabilerara adimentsua emango diena. Beraz argi dago bi osagai hauek elkarren beharra dutela gure proiektua gauzatzeko, nahiz eta pantailak eduki, teknologiarik gabe ez dira baliagarriak izango eta alderantziz, IA edukita ere pantaila fisikorik gabe ezingo genuke produktu fisikorik eskaini.

Horrez gain proiektuaren arrakasta bermatzeko ezinbestekoa izango da harreman estrategikoak edukitzea eta gure produktua ezagutzera ematea. IA eta pantailak izatea ez da nahikoa izango produktua merkatuan kokatzeko, hori lortzeko lan egin beharko dugu. Horretarako gure taldeak kontaktuen identifikazioa eta garapena egingo du. Gure produktuarekin interesa izan dezaketen kontaktu garrantzitsuekin harremanetan jartzea funtsezkoa izango da merkataritza eta teknologia arloetako enpresekin lan egiteko. Aurkezpenak eta erakustaldiak antolatuko ditugu, produktua zuzenean erakusteko aukera sortu behar dugu gure teknologiaren potentziala eta balioa azalduz. Kontaktuei erakutsi behar diegu gure produktua berezia eta erabilgarria dela eta merkatuan lehiatzeko benetako aukera duela. Merkatuaren ikusgarritasuna handitu, produktuaren arrakasta ez da soilik salmentan neurtzen kontsumitzaileen eta eragileen artean interesa sortzeak ere garrantzi handia du. Horretarako harreman sare bat eraiki eta sendotu beharko dugu. Harreman estrategiko hauek ez dira soilik gure produktuaren merkaturatze prozesurako baliagarriak izango etorkizunean ere proiektuaren garapenerako laguntza eman dezakete bai teknologiaren hobekuntzarako bai pantailen ekoizpenerako.

Gure proiektua aurrera eramateko bi elementu nagusi garatu behar ditugu, alde batetik pantailak eta Inteligentzia Artifizialaren arteko integrazioa eta bestetik harreman estrategikoen sarea. Bi osagai horiek elkarrekin lan egiten dutenean gure produktua indartsu bihurtuko da bai teknologia aldetik bai merkatuan duen posizioagatik. Pantailen eta IAren konbinazioa teknologia iraultzaile bat sortzeko aukera emango digu eta harreman sendoek gure produktua merkatuan kokatzen eta arrakasta lortzen lagunduko dute. Lan sendo eta



koordinatu baten bidez gure proiektua benetako eragin sozial eta ekonomikoa izango duen produktu bilakatu dezakegu.